

Arabako Foru Aldundiak adineko pertsonak hurbildu ditu GeoArabara, lurraldearen bilakaerari buruzko memoria jasotzeko

"GeoAraba, helduen kontua" ekimenak parte hartzeko saioak proposatzen ditu. Saio horietan, adinekoek beren herri, auzo eta bizikidetza-guneei lotutako oroitzapenak, argazkiak, testigantzak eta istorioak partekatuko dituzte

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 5a. Arabako Foru Aldundiak, Lurralde Oreka eta Lurralde Antolaketa Sailaren bitartez, "GeoAraba, helduen kontua" ekimena jarri du abian, GeoArabari lotutako dibulgazio-jarduera berri bat, hirigintza eta lurraldearen ezagutza herritar guztiei hurbiltzea helburu duena, adinekoen esperientziari, memoriari eta begiradari balioa emanez.

Proposamenak adineko pertsonak Arabako herri eta hirien memoria bizi gisa aitortzea du helburu. Auzoen bilakaerari, elkarguneei, hiri-aldaketei eta bizikidetza-lekuen eraldaketari buruz duen ezagutza balio handiko iturria da lurraldea hobeto ulertzeko eta hirigintza garaikideari buruzko gogoeta aberasteko.

Azken urteotan, Arabako Foru Aldundiak hirigintza haurren eta gazteen artean zabaltzeko lan egin du. Lan-ildo berri horrekin, Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamendu Sailak beste urrats bat eman du, eta GeoArabaren irismena beste kolektibo batzuetara zabaltzeko, belaunaldien arteko elkarriketa eta herritarren parte-hartzea bultzatuz.

Saioek bi ordu inguruko iraupena izango dute, eta elkarriketarako, dibulgaziorako eta ikaskuntza kolektiborako espazio parte-hartzaile gisa garatuko dira. Metodologia dinamiko eta hurbilaren bidez, parte-hartzaileek memoria-mapak sortzen, testigantzak, argazkiak eta istorioak biltzen eta GeoArabari lotutako tresna digitalak erabiltzen lan egingo dute.

Jarduera Paquita Mapas senior youtuberraren ikus-entzunezko formatuko esku-hartzearekin hasiko da. Parte hartzeko giroa sortzen, jakin-mina pizten eta bertaratutako pertsonen artean esperientziak trukatzeko lagunduko du.

Ekimenaren helburu nagusien artean honako hauek daude: adinekoei protagonismoa ematea hiri- eta gizarte-ezagutzaren iturri gisa, topaketa- eta partaidetza-guneak sortzea, tresna digitalen erabilera sustatzea memoria kolektiborako tresna gisa, eta lurraldearen ezagutzarekin eta hirigintzarekin lotutako etorkizuneko ekintzak aberasteko lagunduko duten materialak biltzea.

Arabako Foru Aldundiak lurraldeko hainbat zentro, erakunde eta kolektibo gonbidatuko ditu jarduera honetan parte hartzera, besteak beste, Gasteizko BIZAN zentroak, eremu sozial eta komunitarioari lotutako kuadrillak eta elkarteak.

Informazio gehiago jaso edo ekimenean parte hartu nahi duten erakundeak proyectos@niceplace.eus helbide elektronikoaren edo 639 310 779 telefonoaren bidez jar daitezke harremanetan.